LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

OZ-2025-105
EE- 2025-00502

# LARRABETZUKO UDALERAKO AHOLKULARITZA EKONOMIKOA EMATEKO ZERBITZUA, IRIZPIDE ANITZEKO PROZEDURA IREKI ARRUNTA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUAREN KARATULA

Esp. Zkia: OZ-2025-105//EE-2025-00502
Kontratu tipoa: Zerbitzuak
Prozedura: Irekia
Izapidetza: Arrunta
Esleipen irizpideak: irizpide anistasuna.
Lizitazio elektronikoa: Bai.
Kontratazio Organoa: Alkatetza.
SARA kontratua: Ez
Errekurtso berezia: Bai

## I.- KONTRATUAREN OSAGAIAK

### A.- KONTRATUAREN OBJEKTUA.

Kontratu honen xedea honako hau da: Larrabetzuko Udalari kontabilitate, tributu eta aurrekontu aholkularitza eman. Adierazpen honen barnean barneratzen da ere bai aurrekontu egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari dagokion aholkularitza eta barne kontrolari buruzko aholkularitza ere.

Kontratuak bi sorta izango ditu:

A1. Sortak:

Bai

A.1.1.- 1 SORTA.- Aurrekontu-jardueran aholkularitza.

Sorta honen xedea honako hau da: Larrabetzuko Udalari kontabilitate eta aurrekontu aholkularitza eman. Zehazki, betebehar zehatzak hurrengo hauek dira:

1.- Udalari aholkularitza ematea aurrekontua egiteko aholkularitza eman.
2.- Aurrekontua aldatzeko proposamenak egiterakoan aholkularitza eman eta espedientearen egituraketan parte-hartzea.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

3.- Udalaren aurrekontuaren likidazioa egiterakoan aholkularitza eman.
4.- Udal kontabilitate publikoa eraman.
5.- Udal kontu orokorraren proposamena egitea.
6.- Finantza-zaintza egiteko organo eskudunari bidali beharreko formularioak prestatu, aurrekontu egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari begira.
7.- Zerbitzuen kostu eragingarriaren kalkuluan parte-hartzea.
8.- Aurrekontuaren betearazpen arauaren idazketan parte-hartzea.
9.- Udalean eragin ekonomikoan izan dezaketen erabakietan aholkularitza eman.
10.- Derrigorrezkoa ez den Finantza-kontrola egiteko aholkularitza.
11.- Mugatutako aurretiazko kontrolean laguntza ematea.
12.- Toki-ogasunarekin harremana duten beste gai batzuetan aholkularitza ematea.
13.- Udalerriko giza baliabideen kudeaketa ekonomikoan laguntzea: nominak, gizarte-segurantza eta elkarkidetza, besteak beste.

Kontratuaren objektuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 79200000-6 (Kontabilitate, auditoria eta zerbitzu fiskalak).

A.1.2.- 2 SORTA.- Tributu jardueran aholkularitza

Sorta honen xedea honako hau da: Larrabetzuko Udalari tributu jardueran aholkularitza eman eta tributu batzuen kudeaketan laguntzea. Zehazki, betebehar zehatzak hurrengo hauek dira:

1.- Udal zerga, tasa eta prezio publikoei buruzko aholkularitza.
2.- Ordenantza Fiskalak egiteko aholkularitza.
3.- Hiri izaerako ondasunen gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio proposamenak (Gainbalioa).
4.- Udalaren esku-hartzeak zerga-arloan eskatutako errekurtsoei buruzko aholkularitza eta txostena, bereziki hiri-ondasunen gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoak (Gainbalioa).
5.- Aholkularitza tokiko ogasunarekin zerikusia duten beste gai batzuetan.

Kontratuaren objektuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 792221000-9 (Zerga-aholkularitza zerbitzuak)

A.2.- Loteak aurkezteko mugak ( 99.4.): Ez.

B.- ZERBITZU SUSTATZAILEA

Larrabetzuko Udala.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

C.- KONTRATAZIO ORGANOA ETA ZUZENDARITZA.

C.1.- Kontratazio organoa.-

Alkatetza

C.2.- Kontratazio mahaia:

| | |
|---|---|
| Presidentea | Amaia Lekue Mezo, Udaleko Alkate-Udalburua. |
| Bokala 1 | Ane Ituiño Pérez, AOT Udaleko funtzionarioa |
| Bokala 2 | Ortzi de la Quintana Ibáñez, Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea. |
| Idazkaritza | Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa |

D.- KONTRATUAREN EPEA.

D.1.- Iraupena guztira edo gauzatzeko epea edo azken eguna: lau urte

D.2.- Hasiera data: Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

D.3.- Tarteko epeak: Ez.

D.4.- Luzapenak eta horien iraupena: Bai, urte 1.

E.- LIZITAZIO-OINARRIAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

E.1.- 1 sorta

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

  Kontuan izan behar dugu ezin daitekela zehaztu zerbitzuen zenbatekoa, SPKLren 33. xedapen gehigarriaren esparruan gaudelarik. Orduan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko, orduaren prezio unitarioa eta Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutako ordutegi eta egun kopurua erabili da, beti ere esleipenerako irizpideetan adierazten den prestazio denboraren hobekuntzarekin.

  Hori horrela:

  Prezio Unitarioa: 46,21 €/o.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Gastu orokorrak: %13.
Industria-etekina: %6
Guztira ordua: 55,00 €/o.
BEZ: %21
Guztira BEZ barne: 66,55 €/o.

Prezio ordua kontuan harturik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko 2022, 2023, 2024 eta 2025eko zerbitzuen ordu kopuruen bataz bestekoa hartu da (300 ordu). Hori horrela kontratuaren urteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua honakoa izango da:

| | |
|---|---|
| Zuzeneko kosteak | 13.863,00 € |
| Zeharkako gastuak | 0,00 € |
| Gastu orokorrak (%13) | 1.803,00 € |
| Industria-etekina (%6) | 834,00 € |
| GUZTIRA (bez BARIK) | 16.500,00 € |
| BEZ (%21) | 3.465,00 € |
| GUZTIRA | 19.965,00 € |
| KONTRATUAREN BIZI IRAUPENA: (4 urte) | 79.860,00 € |

- Kontratuaren balio zenbatetsia

| | |
|---|---|
| Lizitazio-oinarriaren aurrekontua (BEZ barik) | 66.000,00 € |
| Urte bateko luzapena | 16.500,00 € |
| 204. art-ren aldaketa %20a | 13.200,00 € |
| TOTAL | 95.700,00 € |

Proposamen ekonomikoa BAZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

E.2. 2. Sorta.

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Kontuan izan behar dugu ezin daitekela zehaztu zerbitzuen zenbatekoa, SPKLren 33. xedapen gehigarriaren esparruan gaudelarik. Orduan, sortaren zerbitzuak kontuan harturik likidatutako hiri-lurzoruaren balio gehikuntzaren zergari dagozkion likidazio kopuruak eta likidazio bakoitzari dagokion zenbatekoa

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

kontuan hartuko da. Likidazio kopurua azkeneko hiru urteetako likidazioen bataz bestekoa izango da (50 likidazio urtean) eta likidazio bakoitzaren prezioa likidatutakoaren bataz besteko prezioa (100,84 € likidazio bakoitzagatik).

Hori horrela:

Prezio Unitarioa: 120,00 €/likidazio bakoitzeko (prezio honetan ere sartzen dira likidazio guztiak edo zergari dagozkion ebazpen guztiak).
BEZ: %21
Guztira BEZ barne: 145,20 € €/o.

| | |
|---|---|
| Zuzeneko kosteak | 5.042,00 € |
| Zeharkako gastuak | 0,00 € |
| Gastu orokorrak (%13) | 655,00 € |
| Industria-etekina (%6) | 303,00 € |
| GUZTIRA (bez BARIK) | 6.000,00 € |
| BEZ (%21) | 1.260,00 € |
| GUZTIRA | 7.260,00 € |
| KONTRATUAREN BIZI IRAUPENA: (4 urte) | 29.040,00 € |

- Kontratuaren balio zenbatetsia

| | |
|---|---|
| Lizitazio-oinarriaren aurrekontua (BEZ barik) | 24.000,00 € |
| Urte bateko luzapena | 6.000,00 € |
| 204. art-ren aldaketa %20a | 4.800,00 € |
| TOTAL | 34.800,00 € |

Proposamen ekonomikoa BAZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da. Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

E.3.- Kontratua osorik:

- Lizitazio-oinarriaren aurrekontua:

1. Sorta: 79.860,00 €
2. Sorta: 29.040,00 €

GUZTIRA: 108.900,00 €

- Kontratuaren balio zenbatetsia: Lizitazio-oinarriaren aurrekontua:

  1. Sorta: 95.700,00 €
  2. Sorta: 34.800,00 €

  GUZTIRA: 130.500,00 €

F.- AURREKONTU IZENDAPENA.

Zerbitzu kontratu honen finantziazioaren %100 udalekoa izango da. Horretarako 2026 urteko aurrekontuari dagokionez bi partida erabiliko dira: 931-22707 eta 932-22709.

II KONTRATATZEKO ESKATZEN DIREN BETEKIZUNAK

G.- GAITASUNA

Pertsona natural edo juridikoak kontratuen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta horien prestazioak beren estatutuen edo eraketa-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan badaude.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK: Izapidetza arrunterako legeak ezartzen dituenak.

ESKATUTAKO ENPRESA-GAIKUNTZA
Jarduera edo prestazioa arautzen duen araudiak eskatutakoak.

H.- KAUDIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA KAUDIMEN TEKNIKO-PROFESIONALA

H.1.- Kaudimen ekonomiko finantzarioa

H.1.1.- Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren gutxieneko baldintzak:

Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta honako aseguru hauek ere esleipendunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu behar dituen berariazko kontratuak:
- Erantzukizun zibila.

Ondorio horietarako, bere jardueran erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu duela egiaztatu beharko du, eta aseguratutzat hartuko ditu enpresa kontratista, azpikontratistak eta, hala badagokio, bere kargura esku hartzen duten langileak.

Poliza horren gutxieneko zenbatekoa 300.000,00 eurokoa da.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Enpresa esleipendunak bere kontura kontratatu eta mantenduko du aseguru hori kontratu-aldian eta egon daitezkeen luzapenetan.

H.1.2.- Egiaztatzeko modua:

Kaudimen baliabide horiek egiaztatzea nahitaezkoa izango da esleipendun gisa proposatutako lizitatzailearentzat, SPKLn ezarritakoaren arabera, eta, horretarako, honako hauek bidaliko dizkio erakunde kontratatzaileari:
- Indarrean dagoen polizaren ziurtagiria edo egiaztagiria eta ordainagiria.

## H.2.- Kaudimen teknikoa

H.2.1.- Kaudimen Teknikoaren gutxieneko baldintzak:

Azkeneko hiru (3) urteetan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrenda: Eskaintza aurkezten duen lizitatzaileak kontratu honen xedearen antzeko bi zerbitzu gutxienez egin dituela egiaztatu beharko du. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo jasotzailea subjektu pribatu bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lan edo zerbitzu horiek. Kontratista enpresa sortu berria bada, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna badu, kaudimen teknikoa egiaztatzeko, SPKLren 90. artikuluaren 1. paragrafoaren b) eta i) bitarteko bat edo batzuk erabiliko dira.

H.2.2.- Egiaztatzeko modua:

Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazita. Horretarako, beharrezkoa izango da honako hauek egiaztatzea: organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak edo modu frogagarrian egiaztatzen duten beste dokumentu batzuk. Kaudimen-betekizun horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak bakarrik egiaztatu behar ditu.

## H.3.- Kaudimen irizpideez gain, baliabide propioak:

H.3.1.- Bai. Kontratua gauzatzera adskribatuko dira beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak, preskripzio teknikoen pleguetan jasotako zehaztapenen arabera. Nolanahi ere, honako agindu hauek bete beharko dira:
1. Kontratistak kontratu honetan jasotako zerbitzu guztiak egingo ditu BTPan eta/edo bere eskaintzan aurreikusitako langileekin, eta bermatuko du zerbitzua une oro behar diren langileekin ematen dela, langileen eskubide sozialak (baimenak, oporrak, lizentziak) edo gertatzen diren bajak alde batera utzita.

2. Esleipendunak kontratu hau gauzatzeko erabiliko dituen langileak BTPn ezarritako gutxieneko prestakuntza eta esperientzia izan beharko dute. Nolanahi ere, prestakuntza, esperientzia bezala, kontratu hau gauzatzean garatuko dituen zereginetarako egokia izan beharko da. Langile horiek ez dira ez eskaintzan ez kontratuan identifikatuko datu pertsonalekin, baizik eta lanpostuaren eta/edo funtzioen arabera.
3. Esleipendunak kontratu honen xede diren prestazioak gauzatzen aritzen diren langile guztiak esleipendunaren plantillan sartuta egon beharko dira, eta ez dute lan loturarik izango Udal honekin. Langile gehienek enpresak kontratatuta egon beharko dute aldez aurretik. Esleipendunak, puntualki, kontratu hau gauzatzeko langile berriak kontratatu behar dituenean, langileak zuzenean haren xede diren zerbitzuekin lotzen ez dituen kontratazio motaren baten bidez egin beharko du, baizik eta zuzenean haren enpresa esleipendunarekin, eta, horretarako, mugigarritasun geografikoko klausula bat sartu beharko du dagozkion lan kontratuetan. Udalak ez du inolako esku-hartzerik izango bere hautaketan.
4. Esleipendunak ezin izango ditu inola ere antolatu Udal honekin sinatzen duen kontratuaren xede diren prestazioak, halako moldez non unitate ekonomiko bat eratu ahal izango den, enpresaren gainerako jardueratik bereizitako nortasun propioarekin. Horretarako, kontratu hau gauzatzera bideratzen dituen langileetako batek ere ez ditu bere zeregin bakartzat hartuko kontratuari dagozkion lanak. Irizpide hori esleipendunak ezarri beharko du, baldin eta, udalaren aldez aurreko baimenarekin, kontratuaren xede diren prestazioen zati bat hirugarren batekin azpikontratatzen badu.

H.3.2.- Honela egiaztatuko da:

Erantzukizunpeko adierazpena, zeinean lizitatzaileak konpromisoa hartzen baitu, adjudikazioduna izanez gero, aurreko atalean deskribatutako giza baliabideak kontratuari atxikitzeko. Kontratua gauzatzen hasi aurretik eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak egiaztatuko du baliabide pertsonal horiek benetan erabilgarri daudela eta eskatutako baldintzak betetzen direla.

H.4.- ESKATUTAKO KAUDIMENA ORDEZKA DEZAKEEN ENPRESA-SAILKAPENA:

EZ DA DERRIGORREZKOA, kontratuaren xedeari dagokion CPV kodea EZ baitago HAKLEOren II. eranskinean araututako indarreko sailkapenen eremuan, abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan.

## III LIZITAZIOA

### I.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

#### I.1.- Proposamenak aurkezteko epea

15 egun natural..

I.2.- Proposamenaen forma eta edukia.

A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

1. BAZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa.

Plegu honek eta legeak exigitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

Gutun-azal honetan sartuko dira irizpide subjektiboak baloratu eta zenbatu ahal izateko derrigorrezko dokumentazioa, plegu honen karatularen I.2 atalean zehazten diren irizpide subjektibo edo ez-automatikoekin erlazioa dutenak

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

C gutun-azalaren barruan sartuko da proposamen ekonomikoa II. Eranksinean xedatutakoarekin bat eginda.

I.3.- Lizitatzaileak zenbat denbora eutsi behar dion bere eskaintzari:

BI hilabete.

J.- KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK

J.1.- Aurkezteko modua: udalak@larrabetzu.eus edo 944557009 telefono-zenbakira deituz.

J.2.- Erantzuteko epea: eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 2 egun natural lehenago.

J.3.- Kontsulten izaera loteslea: BAI.

K.- BERMEAK:

K.1.- Behin behineko bermea: Ez.

K.2.- Behin betiko bermea: %5.

K.3.- Berme osagarria: Ez.

## IV ESLEIPEN IRIZPIDEAK

### L.- ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 70 PUNTU ARTE.

L.1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 40 PUNTU ARTE (2. Lotean 50 puntu).

Eskaintza ekonomikoa atxikitutako formularen arabera baloratuko da eta gehienezko puntuazioa (40 puntu) eskaintza ekonomiko baxuenari eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) esleipen aurrekontuari emango dizkie.

| | |
|---|---|
| P.L: | Esleipen aurrekontua |
| O.E.M.B: | Neurriz kanpokoa ez den eskaintza ekonomikorik baxuena |
| O.E.x: | x enpresaren eskaintza ekonomikoa |
| V.max: | Gehienezko balorazioa |
| Vx: | x eskaintzaren balorazioa |

*Vx = V. max x [(PL - Oex)/(PL - OEMB)]*

Hauek dira proposamenak bideraezinak izan daitezkeela eta anormaltasun-presuntzioan sartuta egon daitezkeela ondorioztatzeko mugak:

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzatzat hartuko da onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa % 10 edo gehiago jaistea. Eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen badute anormalki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen, gizarte edo lan arloan, nazionalean edo nazioartean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Ustez anormalak diren eskaintzen kasuan, 9/2017 SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

Enpresa lizitatzaileen artean berdinketa emanez gero, lehentasuna izango dute eskaintza egiteko unean hurrengo egoeretan dauden enpresen proposamenak (lehentasuneko hurrenkeran)

a) Ezgaitasun egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak edota gizarte-bazterkeria arriskuan egon daitezkeen ehuneko kopuru handiagoa duten enpresak; eta berdintasun egoeran, finkoak diren langile ez-gaitu kopuru handiagoa duenak.

b) Enpresa horietan aldi baterako kontratu kopuru txikiagoa duenak.

c) Enpresa horietako bakoitzeko plantillan emakume portzentaje kopuru handiagoa dutenak.

d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa egoerak jarraituko balu, zozketa egingo da.

L.2.- ESPERIENTZIA: 20 puntu

L.2.1.- 5.000 biztanle baino txikiagoko toki-erakundeetan esperientzia: 10 puntu.

2,5 puntu urteko, 5.000 baino biztanle gutxiago duten udalerrietan aholkularitza emateagatik eta gehienez, 10 puntura arte.

Egiaztapena toki-erakundeko organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egingo da, azken ziurtagiri hori ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.

L.2.2.- Prestazioa gauzatzeaz arduratzen diren langileek (zerbitzua emateko proposatutako eta esleitutako taldeko pertsonak) Sicalwinen programan kontabilitate programak erabiltzen duten esperientzia baloratuko da (10 puntu gehienez): 2 puntu urteko.

Egiaztapena toki-erakundeko organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egingo da, azken ziurtagiri hori ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.

L.3.- EXEKUZIO DENORA: 10 puntu (Ez da 2 lotean kontuan hartuko).

Presentzialki eman behar diren orduen handitzea: 10 puntu.-

BTPan adierazten diren presentzialki zerbitzua emateko gutxieneko orduen handitzea.

- 160 ordu baino gutxiago: 2 puntu.
- 190 ordu baino gutxiago: 4 puntu.

- 210 ordu baino gutxiago: 5 puntu.
- 260 ordu baino gutxiago: 8 puntu.
- 260 ordu baino gehiago: 10 puntu.

M.- ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK: 30 PUNTU ARTE.

PROPOSAMEN TEKNIKOA: 30 PUNTU

A) Proiektuaren metodologia eta ikuspegia: zerbitzua nola eman den argi eta garbi azaltzen duen memoria, honako hauek adierazita: zerbitzuaren deskribapena, lanen kalitate-kontrola, zerbitzua garatzean erabiliko den metodologia, lizitatzaileak egiteko konpromisoa hartzen duen elementu guzti-guztien definizio argi eta zehatzarekin, baldintza teknikoen agirian zehaztutako arlo eta moduluen gaineko ezagutza funtzionala, eta kontratua betetzeko aplikatu beharreko soluzioen teknika funtzionala. Administrazioaren arloan indarrean dagoen legeria guztia eta aplikatzekoak diren arau teknikoak, bai eta proposatutako jarraipen-kontrolaren eredua ere, zeina aplikatuko baita (20 puntu, gehienez).

B) Zerbitzu gehigarriak: pleguetan sartzen ez diren zerbitzuak, lizitatzaileak bere eskaintzan sar ditzakeenak eta, kontratazio-mahaiaren iritziz, zerbitzua hobeto ematea dakartenak (10 puntu, gehienez).

C) Giza taldea: argi eta garbi adierazi eta justifikatu beharko dira lantaldeak PTPn aipatzen diren funtzioetan dituen ezagutzak. Zerga-, lan-, kontabilitate- eta aurrekontu-arloan indarrean dagoen legeria guztia betetzeko aplikatu beharreko soluzioen ezagutza funtzionala eta tekniko-funtzionala baloratuko dira PTAn deskribatutako arloetan (10 puntu, gehienez).

ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZINEZKO IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEZKO PUNTUAK

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona eta empresa lizitatzaileei eskatu egingo zaie era automatikoan edo formula bidez zenbatu ezinezko irizpideetan gutxieneko puntuazioa eskuratzea; eta beraz, Kontratazio mahaiak ez ditu kontutan hartuko irizpide subjektiboen atalean gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen pertsona edo enpresa lizitatzaileen proposamenak.

## IV KONTRATUAREN EXEKUZIOA

N.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Idazkari kontu-hartzailea

## Ñ.- ALDAERAK BAIMENTZEA

Kontratuaren xedearen barruan lan-karga handitzeagatik edo Larrabetzuko toki-ogasunaren jarduerari dagozkion beste arrazoi batzuengatik egin daitezkeen aldaketak kontratuaren esleipendunari entzun ondoren egingo dira, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20ko mugarekin.

## O.- BERMEA ETA JASOTZEKO EPEA.

Bemeraren epea 2 hilebetekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

## P. PERTSONA EDO ENPRESA KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK.

Kontratuaren exekuziora lotuko den pertsonala enpresa esleipendunaren menpe egongo dira soilik. Horrek enpresari bezala dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan-araudi, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun eta higienea eta arriskuen prebentziorako araudian ezarritako eta indarrean dauden baldintza guztiak bete beharko ditu; era berean, bere menpeko langileriatik eratorritako tributu zein obligazio fiskalak bete beharko ditu, eta Udala enpresa edota pertsona kontratista eta bere pertsonalaren arteko erlaziotik salbuetsita geratuko da.

Lizitatzaileek kontratuaren objektuaren jarduera burutzen duten langileei aplikatuko zaien lan-hitzarmenari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuko dute, eta kontratua esleitu ondorren, langile horiei ezartzen zaizkien lan-baldintzei buruzko edozein informazio jakinaraziko diote udalari hala eskatzen zaionean enpresariari.

Entitate esleipendunak, kontratuaren betearazpena ematen den artean, aplikagarri den lan-hitzarmenean zehaztutako soldata ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari dagokiona, ezin izango delarik lan-hitzarmenak zehaztutako soldata baino baxuagorik ezarri.

Enpresa esleipenduna ordainketa egokia egiteko konpromezua hartuko du, eta modu zuzenean jasango du, Udalari ezin izango diolarik inolako kasutan trasladatu, lan baldintza edo soldatetan ematen den edozein hobekuntzaren kostua, hala hobekuntza hori lan-hitzarmene paktu zein edozein akordiotik eratorria izan, nola beste edozein ingurubarretik eratorria izan.

Enpresa edo pertsona kontratista lan arloko jurisdikzioaren aurrean erantzule izango da bere menpeko langileek dagozkioen funtzioak egiterakoan izan ditzazketen istripuen

gainean. Zentzu horretan, enpresa edo pertsona kontratista bere menpeko pertsonalari beharrezkoak diren segurtasun neurriak ezarri beharko dizkie, eta lan osasun eta segurtasunaren atalean apligarri diren xedapenak bete beharko ditu.

Zerbitzu kontratua amaitzean ezingo da eman kontratuaren objektu diren lanak egin dituzten pertsonen kontsolidaziorik administrazio kontratugilearen personal bezala.

Q.- KONTRATUZKO OINARRIZKO BETEBEHARRAK.

- Lan arlokoak: enpresa edo pertsona kontratistaren betebeharrak langileen Gizarte Segurantzako altari eta bajari dagokienez, eta soldatak eta kotizazioak ordaintzeari dagokionez, hitzarmen kolektiboaren, lanbide-kategoriaren eta langilearen eta enpresaren artean itundutako hobekuntzen arabera..
- Erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du ordainsari egokia jasotzeko, eta zuzenean hartuko du bere gain, inola ere ez Udalari helarazteko moduan, lan-baldintzen edo langileen ordainsarien edozein hobekuntzaren kostua, hobekuntza hori hitzarmen kolektiboen, itunen edo edozein motatako akordioen ondorio izan zein beste edozein zirkunstantziaren ondorio izan.
- Kontratista izango da, lan-arloko eta lan-arloko jurisdikzioaren aurrean, bere eginkizunak betetzeagatik langileei gerta dakizkiekeen istripuen erantzule. Ildo horretan, kontratistak beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren xedapen guztiak bete beharko ditu.
- Zerbitzu-kontratua amaitzean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inola ere finkatu administrazio kontratatzailearen langile gisa.
- Zerbitzua euskaraz eman beharko da, eta beraz, zerbitzuari atxikitutako langileek gutxieneko III. Hizkuntza gaitasuna eduki beharko dute. Hori egiaztatzeko, zerbitzuan parte hartuko duten langile guztiek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute
- Zerbitzuan parte hartzen duten pertsona guztiek sexuzko izaera duten aurrekari penalak ez dituztenaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko asegurua eduki beharko du indarrean gerta daitezkeen ezbeharrei erantzuteko.
- Subrogatzeko obligazioa: Gaur egun zerbitzua ematen duten langileek (IV. eranskina) subrogatzeko betebeharra du enpresa esleipendunak, sektorean aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren 58. artikuluak adierazi bezala.
- Kontratua gauzatzera atxikitako langileak erakunde esleipendunaren mende baino ez daude. Erakunde horrek enpresaburu izateari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta indarrean dauden lan-legeriaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen eta arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak bete beharko ditu, bai eta langile horietatik erator daitezkeen zerga eta betebehar fiskal

guztiak ere. Udalak ez du erantzukizunik izango pertsona edo enpresa kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gainean.

- Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, adjudikaziodun izanez gero, eta, kontratua adjudikatu ondoren, langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.
- Bestelakoak: zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren medio pertsonal eta materialak atxikitzea.

Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLaren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.

R.- KONTRATUAREN BETERAZPEN BALDINTZA BEREZIAK.

1.- Berdintasun-legeetan edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako eskubideei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak egingo dira, genero-berdintasunaren eta familia-kontziliazioaren arloan, kontratua gauzatzera atxikitako langileentzat. Prestakuntza-ekintzak gehienez ere 12 hilabeteko epean eman beharko dira, prestazioa hasten denetik zenbatzen hasita.

2.- Kontratua Larrabetzuko Udalean bertan gauzatzen duten esleipendunek Udalean egiten diren prestakuntza-ekintzetan eta euskara sustatzeko ekintzetan parte hartuko dute.

S.- ORDAINTZEKO MODUA.

Prezioaren ordainketa BAZPen zehaztutakoaren arabera egingo da eta bankuko transferentzia bidez.

Pertsona edo enpresa kontratista derrigortua dago formatu elektronikoa erabiltzen. fakturak jaulki eta igortzeko. Faktura elektronikoek Facturae, 3.2 bertsioan ezarritako formatuarekin bat egingo dute, eta ziurtagiri balioztatu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Larrabetzuko udaleko web orrialdean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bitartez.

Organo hartzaileari faktura era egokian igorri ahal izateko, adieraziko da:

Kontabilitate publikoaren organo eskuduna: Kontu-hartzailetza.
Kontratazio organoa: Alkatetza
Fakturaren organo hartzailea: Idazkaritza-kontuhartzailetza.

Kontratua suntsiarazteko kausa zehatzak dira:

- Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren objektua den prestazioa ez-betetzea edo gaizki betetzea.
- Pleguetan oinarrizkotzat jotako kontratuzko-obligazioen ez-betetzea.

## T.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

### T.1.- Konfidentzialtasuna.

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLren 133.2 artikulua. Horren bidez, kontratistak kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo, bere izaeragatik, halakotzat tratatu behar bada.

Enpresa lizitatzaileek, kontratua gauzatzean, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera tratatu beharko dituzte datu pertsonalak, eta konpromisoa hartzen dute datu pertsonalak babesteari buruzko Espainiako eta Europako araudian xedatutakoa betetzeko.

### T.2.- Datuen babesa.

Kontratatutako lanak egiten diren bitartean datu pertsonalak erabiliko dira, eta enpresa esleipenduna behartuta dago Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hura garatzen duen Erregelamenduan (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datuak babesteko erregelamendu orokorra indargabetzen duena) ezarritako eskakizunak betetzera.

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortzen dituen datu automatizatu pertsonalak, kontratuan agertzen ez den beste helburu baterako.

Kontratuaren prestazioa bete ondoren, tratatutako datuak Udalari eman beharko zaizkio. Enpresa esleipendunak suntsitu egin beharko ditu bereak, non eta udalak ez duen

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

horretarako idatzizko baimena ematen, gerora zerbitzuak emateko aukera dagoelako. Kasu horretan, 5 urtez gorde ahal izango dira, segurtasun-baldintza egokiekin.

Esleipendunak edo haren langileek sekretua gordetzeko betebeharra urratzea eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ez betetzea dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

U.- LANEN JABETZA.

Kontratuaren exekuzioan zehar egiten diren ikerketa eta dokumentu guztien jabetza Larrabetzuko Udalarenak izango dira. Horrek kopiatu, publikatu eta hedatu ahal izango ditu osorik edo partzialki, lanen egilea den pertsona edo enpresa esleipendunak aurkaratzeko eskubiderik gabe.

Pertsona edo enpresa esleipendunak ezingo du kontratuaren exekuzioaren ondorioz egindako ikerketa eta dokumentazioaren inongo erabilpen edo hedapenik egin, osorik zein partzialki, zuzenean edo zeharka, Kontratazio organoaren baimen espresurik gabe.

Kontratuaren xedea bada jabetza intelektual edo industrialerako eskubideak babestutako produkturen baten egiletza, enpresa edo pertsona kontratistak eskubide hori Administrazio kontratugileari lagatu beharko dio .

LARRABETZU
UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
**www.larrabetzu.eus**